## JENTILBARATZAKO GAZTELUA XIII-XIV. mendeetan

**.-1261**—Ataungo gazteluan Gipuzkoatik beraien etsaiei bereganatutako behi, txekor eta txerriekin Garci Semeneiz eta Migel Duran babesten dira.

**.-1265**—Diego Lopez de Arbizu alkatea.

**.-1277**—Roy Peritz alcaideak Nafarroako erregeari konponketak egiteko diru eske.

**.-1279**—Gipuzkoarrek gaztelua setiatzen dute eta Pont de Monrodot laguntzan dator.

**.-1290**—Diego Lopiz Garrizkoa alkatea (Ausa eta Gorritin ere)

**.-1294**—Diego Sanchiz Garrizkoa alkatea. Bere garaian sute bat gertatu omen zen eta Juan Yeneguiz eta bere langileak konponketaz arduratuko dira (400 gizon eta 300 zamabere)

**.-1300**—Pedro Rodriguez Olaldekoa alkatea (Ausan ere? 1304an)

**.-1305**—Pedro Rodriguez Olaldekoa alkatea.

.-1313—Pedro Arnal Urtubiakoa alkatea 1319ra arte.

**.-1321**—Didaco Lopiz Arbizukoa eta Miguel Arnariz Arbizukoa alkateak.

**.-1323**—Pedro Rodriguez Olaldekoa alkatea.

**.-1328**—Miguel Arnariz Arbizukoa alkatea.

.-1330—Martin Gracia Muguerzakoa alkatea 1341ra arte.

**.-1328**—25 libra xahutu ziren Gipuzkoa aldera ematen duen harresian.

**.-1334**—Garita bat egin zen, 2 konpondu, Lazkao aldeko eta Etxerri aldeko harresiak ere eta ura gordetzen laguntzeko 8 ubide.

**.-1335**—Segura eta Ypuzcoako Ermandadeak, Martin Perez Lazkaokoak gidaturik, Ataun setiatzen dute mendialdeko merinoak, Gil Garcia Yanizekoak San Adrian aldean, Segurakoak ziren 31 zamabere lapurtu zituelako

**.-1343**—Garitak, dorrea, jauregia? Berritzen dituzte.

**.-1346**—8 ubideak eta haizeak eramandako dorre nagusiko estalkia konpontzen dituzte.

**.-1350**—Pedro Ladron Gebarakoa alkatea (Ausa 1335ean galdu zuena)

**.-1350**—Jauregia, 3 garitak, ubideak eta Nafarro aldeko harresia berriz konpontzen da.

**.-1352**—XX kahiz gordetzeko haritzezko kutxa jartzen da.

**.-1355**—Uharka eta bi dorreak konpontzen dira.

**.-1372**—Arma gizonen etxola eta dorre nagusiaren estalkia konpontzen dira.

**.-1378**—Gaztela eta Nafarroaren arteko gerra dela eta Karlos II.aren aginduz gaztelua suntsitzen da.

**.-1390**—Merinoak gaztelua suntsitu dela ziurtatzen du.

## JENTILBARATZA TESTUINGURUA

Goi ertaroan, Hego Euskal Herriko lau eskualdeetatik Gipuzkoa da dokumentazio eta iturri aldetik zailtasun gehienak agertzen dituena. 1025. urtean San Juan de la Peñan sortutako dokumentu batetik pentsa daiteke Gipuzkoako lurrak Iruineako Erresumaren jaurgoetariko bat izan zitezkeela.

Ordura arte, giza taldeen mugikortasuna ezaugarri nagusitzat har genezake. Espazioa banatu edo mugatu gabe legoke, behintzat jaun edo jabe argirik gabe. Gaztelu edo gotorlekuek ez dute populaketaren antolakuntzan zeresanik izango. Egoera hau ordea, XI. mendetik aurrera aldatu egingo da.

Birkonkistaren testuinguruan XI. eta XII. mendeak nahasiak izango dira mugak etengabe aldatzen joango baitira. Erabakiorra izango zen baina 1198an Nafarroa banatzeko Gaztelako Alfontso VIIIak eta Aragoiko Ramon Berenguerrek Calatayuden adostutako ituna. Rodrigo Ximenez Radakoak idatzitako De Rebus Hispaniaen agertzen den bezela, Alfontso VIIIak 1200. urtean Athavit-eko (Athagun 'Codice Complutense'an) gaztelua bereganatu zuen.

Urte gutxitara Ataungo gaztelua berriz nafarren esku agertzen zaigu, baina ordurako mugetako bi aldeetan liskarrak ohikoak izango dira eta 'La Frontera de los Malhechores' bezela ezagutuko da Arabatik Gipuzkoako Bidasoako eskualderaino dihoan Nafarroarekiko muga lurra.

XIII. eta XIV. mende bitartean eraldaketa sakona jasango du Gipuzkoak. 'Gipuzkoako Lurraldea' deritzonan populazio entitateak aurkituko ditugu, hiribilduak, eta bertan kontzejuak sortuko dira. Denborarekin Ermandadearen sorrera ikusiko da, hau da, Gipuzkoako Lurren ordezkarien batzarra.

Aldi berean feudaltze prozesu bat emango da, jaurgoak sortuko dira eta oinetxe garrantzitsuak Ahaide Nagusiak bihurtuko dira, hauen inguruan ahaide komunitate bat sortuz.

Testuinguru hontan ulertu beharko genuke Ataungo gotorlekuaren papera. Geografikoki inguru zabal eta garrantzitsua kontrolatzen zuen. Arabatik Gipuzkoarako sarbide nagusienetako lurrak dira, abeltzantza eta merkataritzak betidanik erabilitako pasartea eta estrategikoki balio handikoa behin eta Nafarroak Araba eta Gipuzkoako lurrak galduak zituela onartuz.

Nahiz eta muga politikoki finkatuta edo definituta ez egon, hau zaintzea Ataungo gazteluaren eginkizunetako bat izango litzateke, bestea bidelapurreria kontrolatzea. Ziurrenik horrelako gotorlekuak ez ziren bizileku iraunkorrak izango eta Ataunen, egotekotan, goarnizio soldadu kopuruak ez luke 8 oinezko-gizonetatik gora egingo.

Garai hontan, orokorrean, Gipuzkoan eta Euskal Herrian 4 gatazka mota zeuden:

1.- Estatu ezberdinen arteko gerra publikoa

2.-Bando gerra edo leinuen arteko gerra pribatua

3.- Jauntxoen arteko gatazka

4.- Bidelapurreria

Guzti hauen eragina jasan behar izan zuen Ataungo gotorlekuak, baina lehenengoa dirudi izan zela benetan erabakiorra 1378. urtean Karlos II.aren aginduz gaztelua suntsitu izateko.

~ ~

## JENTILBARATZA CONTEXTO HISTORICO

En la alta Edad Media, de las provincias del País Vasco Gipuzkoa seria la de menos fuentes y documentación presenta. Gracias a un documento del año 1025, hecho en San Juan de la peña, se piensa que Gipuzkoa seria una comarca perteneciente al reino de Navarra.

Como distintivo de la sociedad, hasta el siglo XI era su movilidad. El espacio no estaría definido, por lo menos, no tenía el control del territorio un señor. Así los castillos o fortalezas no tenían el poder de controlar una región. Pero esta situación a partir del siglo XI cambiara.

Dentro del contexto de la reconquista, siglos XI y XII, las fronteras estarán en constante cambio. Fue clave, en 1198, cuando Alfonso VIII de castilla eta Ramon Berenguerrek de Aragon el acuerdo que firmaron, en Calatayud, para dividir Navarra. Como Aparece en el "Rebus Hispaniae" por Rodrigo Ximenez de Rada, Alfonso VIII en 1200 conquista el castillo Athavit (Athaun en el "codice complutense").

En pocos años, el castillo de Ataun aparece como navarro otra vez, pero para esa época los enfrentamientos en la frontera son corrientes y toda la frontera desde Alava hasta la costa Gipuzkoana rodeando el margen derecho del Bidasoa se conocera como la "Frontera de los malhechores".

En los siglos XIII y XIV el territorio Gipuzkoano tendrá cambios significativos. Conocerá una región Gipuzkoana, que creará villas con consejos dentro de ellas. Con el tiempo, aparece la ermanda gipuzkoana, las juntas que representaran a Gipuzkoa.

Al mismo tiempo se lleva a cabo en proceso de feudalización, creándose los señoríos y las casas principales se convertirán en Parientes Mayores, alrededor de estos irá surgiendo una comunidad de parentescos.

Dentro de este contexto interpretaríamos el castillo de Ataun. El control geográfico que tendría del paso de Alava a Gipuzkoa seria estratégico, ya que el paso siempre se uso para el comercio y la ganadería y Navarra ya había perdido el control de las dos provincias.

La frontera política no estaba del todo clara pero la función principal del castillo era controlarla y hacer frente al bandidaje. Seguramente la fortaleza no servia como residencia habitual, sino tendría una guarnición temporal con 8 soldados como máximo.

Tenemos cuatro formas de confrontación diferentes, en esta época:

1.- La guerra abierta entre diferentes reinos.

2.-La guerra privada entre linajes o parientes.

3.-Confrontaciones entre diferentes señores.

4.-Bandidaje.

Todos estos tipos de enfrentamientos se vio reflejado en el castillo de Ataun, pero parece ser que el primero fue razón principal, para que en 1378 Carlos II mandara destruir el castillo.

kutxa

## CASTILLO DE JENTILBARATZA siglos XIII- XIV

**.-1200** — Primera mención en "de rebus hispaniae" de Rodrigo Ximenez de Rada.

**.-1261**— Garci Semeneiz y Migel Duran se refugian en el castillo de Ataun, después de saquear animales de gipuzkoa.

**.-1265**—Diego Lopez de Arbizu alcaide.

**.-1277**— El alcaide Roy Peritz pide dinero al rey de Navarra para reformar el castillo.

**.-1279**—Los gipuzkoanos sitian el castillo y Pont de Monrodot tiene que venir a ayudar.

**.-1290**—Diego Lopiz de Garriz alcaide ( Tambien en Ausa y Gorritin).

**.-1294**—Diego Sanchiz de Garriz alcaide. El castillo se quema y Juan Yeneguiz lo reconstruye (400 hombres y 300 animales de carga).

**.-1300**—Pedro Rodriguez de Olalde alcaide.

**.-1305**—Pedro Rodriguez de Olalde alcaide.

**.-1313**—Pedro Arnal de Urtubia alcaide hasta 1319.

**.-1321**—Didaco Lopiz de Arbizu eta Miguel Arnariz de Arbizu alcaides.

**.-1323**—Pedro Rodriguez de Olalde alcaide.

**.-1328**—Miguel Arnariz de Arbizu alcaide.

**.-1328**— Se gastaron 25 libras en reformar la muralla de la parte Gipuzkoana.

**.-1330**—Martin Gracia de Muguerza alcaide hasta 1341.

**.-1334**— Construyen una garita y reforman dos garitas, la murral de Lazkao y Etxerri y tambien 8 canales para recolección de agua.

**.-1335**— Las hermandades de Segura eta Gypuzco, liderados por Martin Perez de Lazkao, sitian el castillo porque el merino de las montañas Gil garçia de Yaniz en San Adrian, roba 31 animales de carga que pertenecían ha Segura.

**.-1343**—Renuevan la garita, la torre y el ¿palacio?.

**.-1346**—Reforman los 8 canales y el techo de la torre principal que destrozo el viento.

**.-1350**—Pedro Ladron de Gebara alcaide.

**.-1350**—Reforman el palacio, 3 garitas, los canales y la muralla del lado Navarro.

**.-1352**— Para guardar XX cahizes se construye una caja de roble.

**.-1355**—Reforman el aljibe y dos torres.

**.-1368**— Juan Martínez de Muguerza y Juan Sánchez de Urquiola alcaides.

**.-1369**—Juan Sánchez de Urquiola alcaide.

**.-1370**— Juan Sánchez de Urquiola y Ochoa Martínez de Oyanederra alcaides del castillo de Ataun.

**.-1372**—Renuevan el techo de casa de los soldados y la de la torre principal.

**.-1378**—Guerra entre castilla y Navarra. Carlos II manda destruir el castillo.

**.-1390**— El merino da fe de la destrucción del castillo.